



Jean Michel Etchecolonea

EGOERA

Euskal Herriko egoera ekonomikoa konplexua da, lurralde oro har aurreratua den heinean. Argi-ilunak dituen da eta munduan den krisiak, indartsuak

garen esparruan jo gaitu gogorren. Lurralde aurreratu gehienetan finantza sektorea izan bada kaltetuena, gurean industria izan da minduena.

ARGIEN ARTEAN

- Barne Produktu Gordinak (BPG) neurtzen duen ekoizpena handia da, Europako 276 erregioren artean 51. tokian gaudelarik. Europako batez bestearen % 19 gehiago.
- Populazioa gero eta gertatuago dago. 30 eta 35 urte bitartekoen artean, goi mailako titulua EAEko % 54,2k dute, emakumezkoen artean %60 bikainera iristen garelarik. Europako erregioren artean 22.ak gara. Europako batez bestearen % 48 gaintik.
- Ekonomia sozialak (kooperatibak, sozietate anonimo laboralak eta beste) garrantzia handia dauka gurean eta Europa mailan lurralde indartsuena da. 1.800 enpresa baino gehiago eta 88.000 inguru bazkide dituen sektorea da.

ILUNEN ARTEAN

- Gure lurraldeko ekonomia pisua galduz doa Europan, izan ere 2008an 34. tokian ginen sailkapenean BPGri dagokionez, orain baino 17 toki aurrerago. Orduan Europako batez bestetik %30 gora geunden eta egun %19.
- Goi mailako heziketa dugula esan badugu ere, 2011an hobeto ginen, EAE Europako 3. lurraldea baitzen, 30 eta 35 urte bitartekoen artean, goi mailako titulua % 60,6ak baitzuten. Ehuneko 10,6 egin da atzera.
- Langabezia-tasa 13,9an da, Europako batez bestea 8,7 denean.
- Industria sektorearen beherakada oso kezagarria da. 2008an 225.337 langile baziren ere EAEn, 2015ean 171.184 (%24 gutxiago) besterik ez ziren. Establezimenduei dagokionez, 2.812 gutxiago daude 2015ean 2008an baino, -%19.
- Errenten banaketa urruti dago berdintasunetik. Europako banaketa-berdintasun sailkapena eginez, Euskadi 8. egon zen 2014an estatuen zerrendan, baina hala-moduzko adierazle horren azpian, egoera oso latzak ezkututzen dira. Pobrezia latza jasaten dutenak %5,4 dira eta diru-sarreraren zenbatekoei begiratzen badiegu, sarreraren medianaren %60tik behera bizilagunen % 18,5 dira. Adierazle hau Europako txarrenetakoa da. 2006an %14,8 ziren, beraz, 10 urtetan %20 okertu da adierazlea.

HELBURUAK

Behar beharrezkoa da gure industria sektorea jasaten ari den beherakada iraultzea, eta horretarako Industria Politika eraginkor bat martxan jarri beharra dago, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko adostasunetik abiatuz. Teknologikoki aurreratua eta produktiboki espezializazioan dibertsifikatua izango den ehun industrialia izan behar dugu helburu, sozialki bidezkoa eta fiskalki arduratsua izango dena, ezinbestean ingurugiroarekiko jasangarria eta nola ez, gure lurraldean orekatua.

NEURRIAK

1

Ekoizpen eredua hobetzeko eta horren trantsiziorako lidergo publikoa biderkatuko dugu.

Euskal aurrezkoa ekonomia errearen alde eta politika publikoen menpe kokatzeko plangintza gauzatu, EPSVen, Elkargi-Oinarriren, aurrezki funtsen, pentsioen funtsen eta norbanakoen ekarpen babestua biderkatzeko neurriak indarrean jarri.

Industria biziberritzeko plana eta enplegu duina elikatzeko 800M€ko funtsa jarri.

Zerga politika birmoldatzeko aurrerapausoak eman: irabazien gaineko zerga berria, enpresetan langileen parte-hartzea, enpresen demokratizatzea eta lurraldearekiko atxikimendua babestuz.

Enpresen erantzukizun soziala arautu, "laguntza gehiago, baldintza gehiago" lehenetasuna jarri (besteak beste lan baldintza duinak babestuz, lan erreforma ez aplikatuz, deslokalizatorik ez onartuz, paradisu fiskalak ez erabiltzea edo zenbait energia-iturri eta kontsumo-mota sarituz), eta enpresa eredugarrien zigilua sortzea aztertuz. Enpresen erantzukizun soziala arautzeko legea aurkeztuko dugu.

Emandako dirulaguntzen kontrol zorrotzagoa egin, bai emateko orduan zein hauen inguruko jarraipena egiteko, iruzurrak ekiditeari begira. Hau guztia arautzeko legea aurkeztuko dugu.

Produktuen balio kate osoa elikatzeko eta osatzeko neurriak indarrean jarri, produktu-zerbitzuen asmatze eta diseinatze fasea indartzeko.

Legebiltzarrak onartutako neurriak ezarri, I+G+Ban inbertsio mailakatuak burutuz barne produktu gordinaren %3ra iritsi arte.

2

Enpresa txiki eta ertainak (ETEak) eta ekonomia sozialeko ereduak babesteko eta bultzatzeko neurri-sorta abian jarriko dugu.

Tokiko garapenaren eredu oinarritu, eragile guztiekin lankidetzan (enpresak, hezkuntza-zentroak, merkatariak, garapen agentziak-lanbide, ekintzaileak...)

4.0 industria eta I+G+Bren neurriak eskuragarri jarri, nazioartekotzea, elkarrekiko lankidetzak, espezializazioa eta dibertsifikazioa landuz.

Autoenplegua bultzatu jarduera aurreratu: industria 4.0 eta I+G+Ban murgilduta dauden jardueretan enpresen sorketa (ekintzailetasuna) bultzatu.


Adimen ekonomikorako zerbitzu integrala eta aholkularitzarako zerbitzu publikoa martxan jarri.

Enpresetako erabakietan kide guztien partaidetza areagotu.

Kooperatiben legea proposatuko dugu.



Belaunaldi elkartasunerako plangintza egin eta gauzatzen hasiko gara.




Erretiroa dela eta, enpresetako langileen errelebo masibo eta duinerako plangintza estrategikoa egitea, gazteen laneratzea lehenetsiz.

Ekoizpen ereduaren aldaketarekin bat, lanaldiak murrizteko (35 ordu orokortu, 32 ordu jomugan), enplegua eta aberastasuna banatzeko edo aparteko lan orduak desagertzeko neurriak aplikatu, araubideen eta pizgarrien bidez.


Enpresen eta orokorrean gizartearen beharrak kontutan izango dituen heziketa-eredua osatu.



Neurri guzti hauek aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da:



Eusko Jaurlaritzaren Sail desberdinen arteko jarduketak bateratzea industria-politikaren gaietan (Enplegua, Garapen Ekonomikoa, Hezkuntza, Osasuna eta Antolamendua eta Azpiegiturak), Koordinazioko Lehendakariordetza batekin edo prozesuaren buru izango den erakunde publiko-pribatu bat sortuz, Industriako Euskal Agentzia gisakoa.



Industria-politika baterako tresnak garatzeko erakunde arteko akordioa bultzatzea: fiskalitatea, finantza-plataformak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea berrantolatzea, ...